

Gastronomia eta enoturismoa

Gastronomy & Enotourism



**BILBAO
BIZKAIA**
be basque

Merkatuak

Hemengoak

Txakolina

Jatetxeak

Plater tipikoak

Pintxoak

Gozoak

Ekitaldiak

Informazio praktikoa



Erriberako merkatua

i

Europako merkatu estali handiena izateaz harrotzen da. Hartzen dituen 10.000 metro karratuetan, arrantza-portuetatik eta hurbileko baratzeetatik zuzenean ekarritako produktuak erakusten eta saltzen dira. 7 Kaleen aurrean dago eta herrialdearen nortasuna markatzen du, sasoiaren arabera kolorez aldatzen den bitartean. Egiazko esperientzia.



Gernikako astelehenak

i

Astelehenero, **Gernika** kolorez janzen da eskualdeko baserrietatik zuzenean ekarritako sasoiako produktuak aurkezteko. **Urriaren azken astelehenean** egiten baduzu bisita, merkatuak bikaintasun gorena hartuko du eta jolas-esperientzia bihurtuko du eguna.



Sasoikoak

i

Udaberrian, itsasotik, antxoak eta berdelak; baratzetik, ilarrak eta babak; eta azkenburukorako, gatzatua. Udak hegaluzea eta atuna, sardinak, txipiroiak, bakailaoak eta lupiak ekartzen dizkigu, baita piperrak, tomate mamitsuak eta porruak ere. **Udazkena** fruitu lehorrez, sagarrez eta madariez, ondoez, perretxikoez, gaztanez eta patata eta indaba berriez betetzen da. Azalorea, kardua eta aza **negurako** utziko ditugu; sasoiako barazki horiek "txarriboda" edo txerri-hilketako fruituekin batera hartuko ditugu, adibidez, odolkiarekin edo txorizoarekin; itsasotik, berriz, elite gastronomikoa helduko da: bisigua.

Hemengoak



Euskal produktu jatorren edo hemen bikaintasun gorena lortzen duten produktuen zerrenda amaigabea da. Baten bat aipatzearren, Zallako tipula gorriak, Gernikako piperrak eta indabak, marinel-kontserbak (nagusiki hegaluzea), ezta eta jatorri-deitura duten gaztak (Idiazabal edo ardi karrantzarrarena).



Ardoa

i

Gure lurraldearen bereizgarria den produktu bat badago, gainera historia luzea daukana eta probatzen dutenak harritzen dituen, horixe da **txakolina**. Hementxe bertako ardoa da, hondarribi barietateko mahats autoktonoaz egiten dena eta oso hotz dastatzen dena; nagusiki zuri-barietatea edaten da, baina arrosa eta gorria ere badaude.



Upeltegiak

i

Aukera onena txakolina egiten den lekuan bertan ezagutzea da. Horregatik, **upeltegi bisitagarrietako** batera joatea eta dastaketa bat egitea proposatzen dizuegu, betiere ingurune natural batean.



Txakolingunea

i

Baina ardo hori hobeto ezagutu nahi baduzu, **Txakolinaren Museoa, Txakolingunea**, daukazu. Zoaz Bakio herrira eta han historia osoa aurkituko duzu eta ardo horren barietate guztien dastaketa egin ahalko duzu, azalpenak eta guzti.



Izardunak

i

Susma dezakezu... Gure sukaldaritzako izar handi hauen arrakastak ez dira ustekabeak. Lan gogorraz eta pasio itzelaz betetako urte askoren fruitua dira. Lurrealdeak **14 izar** dauzka, 12 jatetxetan banatuta. Hautatu, erreserbatu eta gozatu besterik ez duzu egin behar.



Betikoak

i

Kartetan Bizkaiko sukaldaritza tradizionaleko plater tipikoenak eskaintzen dituztelako bereizten dira, eta bidezkoa da esatea euskal sukaldaritzako jatorrena osatzen dutela. Hiriburuan establezimendu anitz dauzkazu: Alde Zaharrea, Abandon, Basurtun... Eta, oro har, lurraldeko herri guztietan, bai kostaldekoetan bai barrualdekoetan, hemengo sukaldaritzaren bereizgarriak diren platerak aurkituko dituzu.



Egile-sukaldaritza

i

Berritzeko, sukaldaritza modernoa eta kalitate altukoa egiteko eta produktu onenak irudimenaz konbinatzeko espiritua dauka. Etengabe zapore berriak eta sukaldaritza-formula berriak bilatzeko filosofia horrekin, jatetxe ugari jaio dira, bai kokatzen diren gunean bai platerak prestatzeko moduan diseinua lantzen duen ingurune batean. Bilbo zaharrea eta berria zehar hedatzen dira, baita Bizkaia osoan ere.



Slow food filosofia

i

Haren funtsean plazer gastronomikoaz bizi-erritmo motelagoekin gozatzeko xedea dago, elikaduraren balioa eta bizi-kalitaterako duen garrantzia ardatz hartuta. Mugimenduaren premisetako bat da sukaldaritzako profesionalak tokiko produktuak erabiltzeko motibatzea. **"0 kilometroa"** deritzo horri, ekoizleen eta hornitzen dituzten jatetxeen arteko hurbiltasun desiragarria dela eta.

Plater tipikoak



Itsasokoak

Kantauri itsasoko aberastasuna mahaietara iristen da. **Antxoak**, hegaluzeko **marmitakoa**, **legatza Ondarroako erara**, **txipiroiak** beren tintan eta **bakailaoa** bere modalitate guztietan (pil-pilean, Bizkaiko erara, Club Ranero erara...), arrain zapoetsu horretaz betetako piperrak... zain dituzu edozein kartatan. Itsasotik mahaira zuzenean.



Lurrekoak

Bizkaiko baratze aberatsak eta samurtasun handiz zaindutako abereek kalitate oneko produktuak eskaintzen dizkigute, plater gozo-gozoak lortzeko, adibidez, **pistoa** Bizkaiko erara, **menestra** on bat edo Gernikako **indaba** bikainak edo **piper** frijituak. Ezinbestekoa da txingarretan erretako **txuletoi** bikain baten tentaldian erortzea.



Batzuek bazkaldu egiten dituzte, eta beste batzuek, berriz, gosegarri atsegin gisa hartzen dituzte, zaila baita horrelakoei uko egitea. Ikusiko duzunez, ez da zertan gose handirik eduki, kolore eta itxuragatik begietatik sartzen diren gozamenek limurtzen utzi besterik ez da egin behar.

Jaki gastronomiko txiki horiez gozatzeko ibilbideek txikiteoan aritzeko bide berberari jarraitzen diote. Sukaldaritza-jardun horretan lortutako maila dela-eta, tokiko eta nazioko lehiaketa ugari egiten dira; oso maila altukoak dira eta interes handia pizten dute. Lehiaketa horietako batean irabazle gertatuz gero, ziurtatuta edukiko dituzu bezero finak.



Erori Bilbo-Bizkaiko gozotegi klasiko askotako beirategiak apaintzen dituzten gozoetako edozeinek eragindako tentaldian: dastatu, adibidez, merengezko **karolinak**, zeinek sortu zituen gozogilearen alabaren izena baitute, edo **arroz-pastelak**, arroz-irinez egiten zituzten marinelengandik omen datorren errezeta. Beste klasiko bat **euskal pastela** da, eta Gabonetan, **sokonusco turroia**. Kafearekin batera, **gurinezko opila**, **jesuita** edo **kristina** paregabeak dira. Gozo batzuk sorlekuari atxikita daude, esate baterako, **ori-baltzak** (txokolate zuriz edo beltzez bustitako Gernikako bizkotxo txikiak), Markinako **kokoteak** edo Urduñako **mantekadak**. Eztarriko mina badaukazu, malba-gozoki batzuk, **santiaguito** direlakoak, aukera-aukeran etorriko zaizkizu.



Lehiaketa gastronomikoak

Zona bakoitzeko sukaldaritza-kulturaren sustraitutako tradizioetatik datoz. Azoka eta erromerietan hedatzen dira; beraz, egokitu ondo zure agenda, gozamina ziurtatuta dago eta. Ospetsuak dira Balmasedako **putxerak** (indaba-erregosia), Mungiako eta Gernikako **sukalkia** (haragi-erregosia) eta kostaldeko eremuetako **sardinaren**, **hegaluzearen**, **bakailaoaren** edo **marmitakoaren** egunak.



Azokak eta jaiak

i

Behar bezalako jai-ospakizun guztietan, ezinbestekoak dira gastronomia eta herri-bazkariak. Une egokia da errezeta tradizionalak ikasteko edo paella bat zein sardinak partekatzeko. Betiere Bizkaiko txakolin bikainaz bustita.



Gastronomia-sozietateak

“Txoko” ere esaten zaie. Eskuarki sozietate pribatuak dira, non adiskide-talde bat elkartzen baita bertan prestatutako janariaz gozatzeko helburuarekin, konpainia onenean (gizonak bakarrik onartzen dituzten oso gutxi geratzen dira). Norbaitek bere “sozietatera” gonbidatzen bazaitu, pentsatu zorionekoa zarela eta ez egin uko gonbidapenari, “gehientxo” da eta.

BILBO TURISMOA www.bilbaoturismo.net

BIZKAIA TURISMOA www.visitbiscay.eus

EUSKADI TURISMOA www.turismo.euskadi.eus/es

NEKATUR/LANDA-OSTATUAK 943 327 090 · www.nekatur.net

TURISMO-BULEGOAK OROKORRA

BILBO

BILBAO TURISMO 944 795 760

· Plaza Biribila 1, Terminus eraikina

Mazarredo zumarkalea 66

AIREPORTUA 944 031 444

BIZKAIA

BAKIO

946 193 395 · www.bakio.org

BALMAEDA - ENKARTUR

94 680 29 76 · www.visitenkarterri.com

BARAKALDO BEC (Bilbao Exhibition Centre)

944 995 821 · www.barakaldo.org

BERMEO

946 179 154 · www.bizibermeo.eus

DURANGO

946 033 938 · www.turismodurango.net

ELORRIO

946 820 164 · www.visitelorrio.com

GERNIKA-LUMO

946 255 892 · www.gernika-lumo.net

GETXO

944 910 800 · www.getxo.eus

GORLIZ

946 774 348 · www.gorliz.eu

KARRANTZA-HARANA

946 806 928 · www.karrantza.org

LEKEITIO

946 844 017 · www.lekeitio.org

MENDATA

946 257 204 · www.mendata.eus

MUNDAKA

946 177 201 · www.mundakaturismo.com

ONDARROA

946 831 951 · www.ondarroa.eus

URDUÑA

945 384 384 · www.ordunaturismo.com

OROZKO

946 122 695 · www.orozkoudala.com

PLENTZIA

946 774 199 · www.plentzia.org

PORTUGALETE

944 729 314 · www.portugalete.org

SANTURTZI

944 839 494 · www.turismo.santurtzi.net

SOPELA

944 065 519 · www.sopelaudala.org

SOPUERTA

946 504 750 · www.sopuerta.biz

TRUCIOS-TURTZIOZ

946 109 604 · www.turtzioz.org

LARRIALDIAK 112

INFORMAZIO OROKORRA 010

(Bilbo udalerrri barruko deietarako)

944 010 010 (Bilbo udalerritik kanpoko deietarako)

KIDEGO KONTSULARRAREN BULEGOA

944 706 426

HERRITARREN ARRETA

944 241 700

ERREPIDEI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA

011

GALDUTAKO GAUZAK

944 204 981

GARRAIOA

AIREPORTUA

Bilbo-Loiu · 913 211 000 (AENA)

944 869 663

www.aena.es

ITSAS BIDAIAK ETA FERRYA

Bilbo-Portsmouth ferrya 902 108 147

www.brittanyferries.es

TRENAK

Abando Indalecio Prieto geltokia (Renfe)

Plaza Biribila 2 · 902 320 320 · www.renfe.com

Metroaren 3. linea (EUSKOTREN)

Zazpikaleak · 944 333 333

www.euskotren.eus

La Concordia geltokia; FEVE Bilbo

Bailen kalea 2 · 944 250 615

www.renfe.com/viajeros/feve

AUTOBUSAK

Termibus (autobus-geltokia)

Gurtubai 1 · 944 395 077 · www.termibus.es

Bilbobus (udal-autobusak)

944 790 981

www.bilbao.eus/bilbobus

Bizkaibus (autobusak, probintzia eta aireportua)

946 125 555 · www.bizkaia.eus

BILBOKO METROA

946 855 000 · www.metrobilbao.eus

TRANBIA

944 333 333 · www.euskotren.eus

TAXIAK

Radio Taxi Bilbao

944 448 888 · www.taxibilbao.com

Tele Taxi

944 102 121 · www.teletaxibilbao.com

Radio Taxi Nervión

944 269 026 · www.radiotaxinervion.com

BIZIKLETAK ALOKATZEKO ZERBITZUA

Bilbaobizi

946 564 905

BILBOKO MUSEOAK

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

www.guggenheim-bilbao.eus

ARTE EDERREN MUSEOA

www.museobilbao.com

ELIZBARRUTIKO ARTE SAKRATUAREN MUSEOA

www.eleizmuseoa.com

BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA

www.museomaritimobilbao.eus

ASTE SANTUKO PASIO IRUDIEN MUSEOA

www.museodepasosbilbao.com

BILBOKO ZEZENKETA MUSEOA

www.plazatorosbilbao.com

MUSEO VASCO / EUSKAL MUSEOA

www.euskal-museoa.eus

BERREGINEN MUSEOA

www.bilbokoberreginenmuseoa.eus

ATHLETIC CLUB MUSEOA

www.athletic-club.eus

EUSKARAREN ETXEA

www.azkuefundazioa.eus

ARKEOLOGIA MUSEOA

www.bizkaikoa.bizkaia.eus

NATURAGUNEAK

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBA

944 650 822 · www.turismourdaibai.com

946 870 402 (Ihobe) · www.ekoetxea.eus

GORBEIAKO NATURA-PARKEA

Areatzako Parketxeko Interpretazio Zentroa

946 739 279

www.areatza.net

www.gorbeiaeuskadi.com

URKIOLAKO NATURA-PARKEA

946 814 155 · www.urkiola.net

ARMAÑÓNGO NATURA-PARKEA

946 806 257 688 884 330

www.visitenkarterri.com

BIZKAIKO MUSEOAK

KOSTALDEAN

ARRANTZALEEN MUSEOA Bermeo

www.bizkaikoa.bizkaia.eus

BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA Bilbao

www.museomaritimobilbao.eus

BUTROIKO PLENTZIA MUSEOA Plentzia

www.museoplentzia.org

RIALIA INDUSTRIA-MUSEOA Portugalete

www.portugalete.org/ES-ES/RIALIA

SANTURTZIKO INTERPRETAZIO ZENTROA

ITSASOA / AGURTZA ARRANTZA-ONTZIA Santurtzi

www.turismo.santurtzi.net

BIZKAIA ZUBIA Areeta (Getxo) /Portugalete

www.puente-colgante.com

LEKEITIOKO ITSAS ONDARE ZENTROA

www.faro-lekeitio.org

TXAKOLINGUNEA

Bakio · www.bizkaikoa.bizkaia.eus/txakolingunea

URDAIABAI BIRD CENTER

www.birdcenter.org

EKOETXEA URDAIBAI

<http://www.ekoetxea.eus>

BARRUALDEAN

SIMÓN BOLÍVAR MUSEOA Ziortza-Bolibar

www.simonbolivarmuseoa.com

DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOA

www.turismodurango.net

ENKARTERRIETAKO MUSEOA Sopuerta

www.enkarterrimuseoa.eus

EL POBAL BURDINOLA Sopuerta

www.visitenkarterri.com

EUSKAL HERRIA MUSEOA Gernika-Lumo

www.bizkaikoa.bizkaia.eus

GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOKO FUNDAZIOA

Gernika-Lumo · www.museodelapaz.org

GERNIKAKO BATZARRETXEA

Gernika-Lumo · www.gernika-lumo.net

MEDIZINAREN ETA ZIENTZIEN

HISTORIAREN EUSKAL MUSEOA

“JOSÉ LUIS GOTI” Leioa

www.ehu.eus

OROZKOKO MUSEOA Orozko

www.ozkomuseoa.eus

EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA

Gallarta · www.meatzaldea.eus

BALMASEDAKO HISTORIAREN MUSEOA

Balmaseda · www.visitenkarterri.com

BOINAS LA ENCARTADA MUSEOA Balmaseda

www.bizkaikoa.bizkaia.eus/laencartada

VALENTIN BERRIOTXOAKO MUSEOA Elorrio

www.museoberrio-otxo.com

LOIZAGA DORREA. ANTZINAKO AUTOEN

ETA AUTO KLASIKOEN MUSEOA Galdames

www.torreloizaga.com

EUSKAL BASERRIAREN

EKOMUSEOA Artea

www.euskalbaserria.com

BURDIN HESIAREN

INTERPRETAZIO ZENTROA Berango

www.berango.net